

## Ramón Sarasua Gisasolaren Argazki Bilduma



### Identifikazioa

<b>Erreferentzia-kodea</b>	ES20600AME_CFRS
<b>Izenburua</b>	Ramón Sarasua Gisasolaren Argazki Bilduma
<b>Data</b>	1920 / 1970 inguruan
<b>Deskribapen-maila</b>	01 - Bilduma
<b>Bolumena</b>	186 argazki

### Testuingurua

#### Ekoizlea

Ramón Sarasua Gisasola.

#### Aipamen biografikoa

1917an jaio zen, Eibarren, eta 1997an hil zen. Eibarko bizitza sozialean eta kirol munduaren ingurukoan gogotsu parte hartu zuen euskaltzale bat izan zen. 1951. urtean, Eibarko Txirrindulari Elkarteko zuzendaritzan sartu zen, eta bertako lehendakaria izan zen 1955. urtean. Hala, Parisera hainbat alditan joan zen, Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunaren bileretara, eta han harremanak izan zituen txirrindulari onenekin. Bera izan zen Eibarko Bizikleta Sari Nagusiaren eragilea. Abesbatzarako musika ikertzen eta berreskuratzen ere jardun zuen, besteak beste, eta parrokiako abesbatzaren zuzendaria izan zen.

#### Artxiboaren historia

Dokumentazioa Ramón Sarasuaren artxibokoa da.

#### Sartzeko era

1994an, jatorrizko dokumentuak Eibarko Udalari eman zitzaizkion.

### Edukia eta egitura



## **Irismena eta edukia**

Sarasua bilduma Sarasuak berak edo txirringularitzarekin lotura duten hainbat argazkilarik egindako argazkiz osatuta dago. XX. mendearen hasieratik aurrera egindako argazkiak dira, eta, besteak beste, Eibarko pertsona ospetsuak agertzen dira, eta goren mailako kirolariak, zuzendariak eta kazetariak, nazioarteko txirringularitzaren historiaren parte direnak.

## **Sartzeko baldintzak**

Agiritegiak izaera publikoa du. Edozeinen eskura dago, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/90 Legeak jartzen dituen mugekin. Negatiboak aztertzea debekatuta dago.

## **Erreproduzitzeko baldintzak**

Dokumentuak erreproduzi daitezke, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak esaten duen baldintzekin.

## **Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak**

Bildumaren egoera fisiko orokorra ona da.

## **Gehitutako dokumentazioa**

### **Jatorrizko dokumentuen existentzia eta kokapena**

Eibarko Udal Artxiboa

### **Kopien existentzia eta kokapena**

Bildumako argazki guztien erreprodukzioa zuri-beltzeko negatiboetan, 35 mm-ko formatuan eta haien kopia digitala.

### **Lotura duten deskripzio-aleak**

Castrillo Ortuoste argazki-fondoa  
Indalecio Ojanguren argazki-fondoa

### **Argitalpenen oharra**

- . - SARASUA, RAMON: *Eibarko Musikoa*. Ego Ibarra. Eibarko Udala, 1991.
- . - SARASUA, RAMON: *Juan Bautista Gisasola. Musika lanen bilduma*. Ego Ibarra. Eibarko Udala, 1993.
- . - Sebastian, Juanjo; Azpiri, Begoña, *Txirringularitza, Club Ciclista Eibarres - Club Deportivo Eibar*, Eibar, 1994.

## **Deskripzioaren kontrola**

### **Artxibozainaren oharra**

Yolanda Ruiz Urbónek egin du deskripzioa, iturri-dokumental zuzenetan eta Eibarko Udal Artxiboan (Ramón Sarasuaren argazki-bilduma) oinarrituta.

## **Arauak**





ISAD(G) arauan partzialki oinarritutako deskripzioa, Udal Artxiboak garatutako jarraibide espezifikoen arabera.

**Deskripzioaren eguna**

2008-04-07

